



AZOKA BEREZIAK BIHAR IBARRA ETA ASTEASUN

'Ibarra, azoka eta piparra' eta Azoka Berezia izango dira; janaria, artisauak, animaliak... izango dira ikusgai 4-6



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza

Larunbata
2009-09-20

VIURTEA 1.513 ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Ernioaldea 21eko Udaletako zenbait ordezkari bildu ziren Iruran atzo, Mugikortasun Astea aurkezteko asmoz. E. EZEIZA

INGURUMENA ZAINTZA GUZTION ARDURA DELAKO

TOLOSALDEA Mugikortasun Iraunkorraren Astea antolatu dute datozen egunetarako eskualdeko hainbat herritan 3



I. TERRADILLOS

SUKRU KARAKUS ARTISTA

«Nire lana mundua era batera sentitzeari buruzko gogoeta da»

TOLOSA Turkiarraren lanak ikusgai daude Aranburun urriaren 9ra bitarte 2

UEMAko udalek bat egin dute euskaltegiek euskara ikasteko eginiko deialdiarekin 7

Ekitaldiz beterik ekingo diote heldu den asteartean **Kultur Asteari** Bidegorean 5



AITZOL

UDAL EUSKALTEGIA

AZKENEKO AUKERAK

Ikasturte hasiera: irailaren 22an (autoikaskuntzakoak hilaren 29an)

1. maila - 2. maila - Alfabetatzen - 3. maila (EGA) Azterketak euskaltegian bertan.

Ohiko taldeak (astean 8 ordu + tutoretza): euskaltegian, enpresetan, ikastetxeetan, lantokietan...
Autoikaskuntza: tutoretzak, mintzasaioak, bakarkako lana (BOGA + gure unitateak)...

Rondilla, 34-B 3.a
Tel. 943 651006 - 943 652343
aitzolue@tolosakoudala.net

E Elkarrizketa**SUKRU KARAKUS** » Artista

Erakusketa » Artista turkiarraren lanak ikusgai egongo dira Aranburun, urriaren 9ra arte; mihiase gaineo akrilikoak eta arkatzez eta akuarelaz eginikoak daude.

INIGO TERRADILLOS

Sukru Karakus Tolosan bizi den artista turkiarraren lanak ikusgai daude Aranburu jauregian (Malatya, 1956), urriaren 9ra arte. Iruñea eta Tolosaren artean eginiko erakusketa da. Maiatzean Iruñeko Zitudadela izan zen, eta orain eskualdekoek gertutik ikusteko txanda iritsi da. Erakusketaren nondik norakoak azaldu ditu Karakusek.

Zer topatuko dugu Aranburun jarri duzun erakusketan?

Azken 2 urteetan egin ditudan lanak dira. Bat izan ezik. Hori 2005-2006koa da, Mesopotamiako formekin-eta. Bi eratako lanak desberdintzen dira erakusketan. Mihiase gaineo akrilikoak daude, tamaina ugariak, txikiak eta oso handiak. Eta gero, arkatzez eta akuarelaz eginikoak daude.

Zertan desberdintzen dira euren artean?

Azken hauek, hau da, lapitzez eta akuarelaz eginikoek pazientzia eta hausnarketa irudikatzen dute, bizitza bezala. Gertutik ikusten dituzunean ez duzu ia ezer ikusten, baina beste gauzeekin lotzean, orduan bai. Gizartea bezala da. Norbanakoa soilik gauza bat da, baina gehiago elkartzeko direnean, eta hauek elementuekin nahastean gizartea sortzen da. Horregatik lan hauekin, forma edo keinu bat bilatzen dut, eta errepikatu egiten dut, eta orduan sortzen dena bete gauza bat da. Sentsibilitatea, pazientzia... irudikatzen du. Sufismoaren bidetik jarraitzen dut nik, errepikatuz. Mundua era batera sentitzeari buruzko gogoeta bat bezala da. Lan mota hauek duela lau urte hasi nintzen egiten. Erakusketa honetan erdiak-edo dira horrela-



I. TERRADILLOS

«Mundua era batera sentitzeari buruzko gogoeta da nire lana»



Sukru Karakus artista turkiarra Aranburu jauregian, enkantean, urriaren 3an jarriko diren bi lanekin. 'Bakea' da euren izena. I. TERRADILLOS

koak. Orduak igarotzen ditut lan hauek egiten, oso eroso sentitzen naiz. Errepikatuz lehenengo forma edo keinu txikia. Nire ustez jendea sentsibilizatu behar da gauza txikiak, eta gaur egun gehiago, hainbeste gerra eta abar ditugula kontuan hartuta.

Eta mihiase gaineo akrilikoak?

Gauza da gure azal kanpoko bizitzatik eta barnetik lotzen eta bereziten gaituela. Azaletik aurrera bi bizitza baitaude. Ni etengabe egon naiz bidaiazten zehar. Turkian barna, gero hona etortzean. Beti egon naiz leku batetik bestera, eta era berean lekuak galduz. Eta une honetan ez naiz leku batekoa edo beste gogoeta

tzien, eta hobe. Orain, besterik gabe, pertsona naiz. Bidaia zer den, non gauden, lekua zer den... etengabe pentsatzen dagoen pertsona. Hortik aurrera, nik erakusketa honetan dauden lan hauekin makro-mikro bidaia erakutsi nahi dut. Azaletik irteten zarenean distan-

«Urriaren 3an enkante bat egingo da nire bi lanekin; dirua SOS Arrazakeriarentzat da»

tzia handienera iristen zara, eta hor gutxi gorabehera planetak dituzu; eta alderantziz, hau da, azalaren barrura bazoaz, hor zelulak dituzu. Bai planetek, bai eta zelulek ere nahiko forma eta kolore antzekoak dituzte. Berezitasun horrek sortzen du nigan makro-mikro bidaia hori egitea. Ez da bidaia fisiko bat irudimenean egiten dudana, baizik.

Nondik datorkizu lanak egiteko ideia edo inspirazioa?

Nire ustez ez dago inspiraziorik. Ni lanean nagoenean, gauzak irteten zaizkit, baina inoiz ez naiz zain egoten ideia noiz etorriko. Gutxi-naka osatzen joaten zara; ideia buruan daukazu, ideiak batzen dizkiozu, eta beste hainbat faktoreen arabera zoaz aurrera.

Berezitasun bezala, enkante bat ere izango da zure bi lanekin.

SOS Arrazakeriaren esku utzi ditut 2 lan, eta hauekin urriaren 3an enkante bat egingo dute Aranburu bertan. 19:30ean izango da. Lehendabizi Inigo Agirre gitarra-jotzaile tolosarrak kontzertu txiki batekin, eta ondoren izango da enkantearen txanda. Ekimen honekin, jendea sentsibilizatu nahi dugu beste kulturekiko, eta horregatik egin nahi izan dut bat ere SOS Arrazakeriarekin. Izan ere, geroz eta jende gehiago dator kanpotik, eta elkarririk lagundu egin behar diogu bakea lortu nahi badugu. Bestetik, artearekiko ere nahi nuen jendea sentsibilizatzea. Prezio baxu batetik hasiko da enkantea eta edonork parte hartu ahal du. Noski, bertan ataratzeko den dirua SOS Arrazakeriarentzat izango da.

«Nekatiri laguntzea klubari laguntzea ere bada»

Kirola » Nekati Ates Realeko jokalaria turkiar berria gurera egokitzen laguntzen ere ari da Sukru Karakus egunotan.

I. TERRADILLOS

Artearengandik urrun, kirolarekin loturik ikusi ditut Sukru Karakusek azken egunak, eta badirudi horregatik ere horrelakoak izango direla. Izan ere, Nekati Ates Reala-

ren jokalaria berria turkiarra da, eta Karakus dago futbolaria etorri zeneko lehen egunetik bere ondoan, gurera egokitzen laguntzen. Itzulpen lanak egin, gaztelania irakatsi eta bere egunerokoa erosoago egiten saiatzen da.

Nolatan zu Nekati laguntzeko ardura hartuta?

Lehendabizi Taiffunek deitu ninduen, esanez Realeko turkiar jokalaria bat zetorrela eta ea laguntzerik nuen, eta nik baietz esan nuen. Eta orduan klubetik deitu ninduten.

Jokalaria etorri eta hurrengo egunetan berarekin nengoen. 18 egun daramatza Euskal Herrian eta esan daiteke ia uneoro nagoela ni bere ondoan.

Zein da, zehatz mehatz, zure lana?

Gurera ahalik eta azkarren eta egokien egokitu dadin laguntzen diot. Entrenamenduetan egoten naiz berarekin. Gainera, berarekin nagoenetik kirol gehiago ari naiz egiten, eta dieta ere bai, eta egia esan kilo batzuk jeistea lortu dut. For-

man jartzea lortu dut, berak bezala. Entrenatzaileak eta taldekideek esaten dizkionak itzultzen dizkiot. Gustatzen zait lana, eta kluba bera ere eta bertako jendea oso jatorra da, eta oso ondo konpontzen naiz beraiekin. Askotan egiten nengoen ustea ere egokitu zait, eta segituan berarengana joatea, nire laguntza behar zuelako. Gaztelania ere erakusten diot. Azken batean, nire lana berarekin ahalik eta denbora gehien igarotzea da. Oso gustura nago hau egiten, eta uste dut

utzi behar dudanean pena handia sentituko dudala. Gustura nago, baina era berean, gogorra ere bada, lan bat gehiago erantsi baitiot lehen nuenari. Berari laguntzea kluba laguntzea ere bada, gainera, eta hori ere egin behar da.

Denboraldi honetan, beraz gertutik jarraituko duzu Realaren lana.

Harrিতuta utzi nau klubak, oso ondo dagoela iruditzen zait, bertako jendea bezala, eta nire ustez lehenengo mailara igotzea merezi dute. Nik jarraituko dut, noski.

Ingurumena zaintzearen beharraz sentsibilizatzeko pauso bat gehiago

Natura » Eskualdeko hainbat herritan, Mugikortasun Iraunkorraren Astea ospatuko da laster.

ESTI EZEIZA

Ingurumena zaintzea denon ardurua da. Hori dela eta, jendea sentsibilizatzeko asmoz, eta hau bultzatzeko, gero eta jarduerak gehiago antolatzen dituzte. Datorren astean, esaterako, eskualdeko hainbat herritan, Mugikortasun Iraunkorraren Astea ospatuko dute. Izan ere, Tokiko Agenda 21 bultzatzeko, diagnostikoak burutu eta ekintza planak definitu dituzte. Ekintza planetako ildo bat garraio-bide iraunkorragoak sustatzea da, eta helburu hori lortzeko bidean, hainbat jarduerak eramango dituzte aurrera, datozen egunetan.

Tolosan, sentsibilizazio lan honetan, arreta berezia jarri nahi izan dute ikastetxeetan. Hori dela eta, ikasleen laguntzarekin antolatuta dute Mugikortasun Astea, ekimenaren aurkezpenaz ere beraiek arduratu direlarik. Hala, ikasleek, herritar guztiak gonbidatzen dituzte ekitaldi eta ekintzetan parte hartzera. Eta bereziki astelehenean, *Nire kotxerik gabeko eguna* izango baita.

Ernioaldea Udaltalde osatzen duten herrietan ere izango da zer egunik egun hauetan. Aduna, Anoeta, Asteasu, Irura, Villabona eta Zizurkil izango dira ekintzak. Aipatzekoa da mugikortasun iraunkorrarekin lotutako materialen bigarren eskuko azoka. Iaz ere egin zen, eta bertan, herritarrek, bizikleta zaharrak, trizikloak, patinak, patineteak, mailotak, kaskoak... eskuratu ahal izango dira.

Duela hiru egun inauguratu zuten Zizurkil eta Asteasu arteko bidegorria. Orain, Mugikortasun Astearen baitan, ibilaldi bat egingo dute bizikletaz, hortik. Denara, sei kilometro inguru zeharkatuko dituzte txirindulariek, eta tartean, hamaiketako egiteko aukera izango dute Asteasun, indarrak hartu eta itzultzeko.



Tolosako Udaleko ordezkariak ikastetxeetakoekin batera aurkeztu zuten atzo Mugikortasunaren Astea. E. EZEIZA

» MUGIKORTASUN ASTEA

Ernioaldea Udaltalde 21 Bizikleten txekoak.

- **Aduna.** Herri Eskolan, hilaren 22an, 14:30etik 16:00etara. Lehen hezkuntzako 1., 2., 3., 4., eta 5. mailakoei zuzenduta.
- **Zizurkil.** 17:00etan, Pedro Maria Otaño plazan egingo da, hilaren 22an.
- **Anoeta.** Hilaren 23an, 17:00 etatik aurrera egingo dira, herriko plazan.
- **Asteasu.** 17:00etan egingo dute, hilaren 23an, kirroldegian.
- **Zizurkil.** Hilaren 24ean, 17:00 etatik aurrera egingo dira, Pásus plazan.
- **Irura.** Hilaren 24ean, 17:00 etatik aurrera, San Migel plazan.
- **Villabona.** Hilaren 25ean, 17:00 etatik aurrera, Errebote plazan.

Bigarren eskuko azoka.

- **Villabona.** 10:00-etatik 13:30ak arte izango da, Berdura plazan. Bertan, mugikortasun iraunkorra-

rekin lotutako materialak saldu edo oparitu daitezke.

Material bilketa (hilaren 15etik 24ra bitartean).

- **Aduna.** Udaletxean, 09:00etatik 14:00etara.
- **Anoeta.** Abraham Olano kiroldegian, astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 12:30era eta 15:00etatik 21:30era. Larunbategi 09:00etatik 13:00etara.
- **Asteasu.** Udaletxean, 09:00etatik 14:00etara. Eta hilaren 24ean, 17:00etatik 20:00etara ere bai.
- **Irura.** Udaletxean, 09:00etatik 14:00etara.
- **Villabona.** Udaltzaingoa, aurretik telefono honetara deituta: 943 69 39 80.
- **Zizurkil.** Udaletxean eta Aurrerako udal bulegoetan, 09:00etatik 14:00etara. Orduetgi horretan ezin duenak, deitu dezala 943 69 10 12ra edo 943 69 30 66 telefono zenbakira.

Antzerkia ikastetxeetan.

- **Udaltaldeko ikastetxeetan Adunaren izan ezik.** Bide hezkuntza lantzen duen Txerriki Antzerki Elkartearen emanaldia. Lehen Hezkuntzako 3 eta 4. mailakoentzat, hilaren 22tik 26ra bitartean.

Bizikletan ibiltzen ikasteko helduentzako ikastaroa.

- **Hilaren 29tik urriaren 3ra.** Lekua zehazteko dago. Prezioa 35 eurotako da. Izena emateko epea hilaren 16tik 24ra bitartean izango da irekita. Honetarako 656 72 80 85era deitu behar da.

Tolosa

- **Irailak 22, astelehena.**
- **Hiria, nire autorik gabe.** Trafikoaren inguruko datu bilketa.
- **Herritarrentzako aholkuen banaketa.**
- **Txapak egiteko tailerra.** 17:00etatik 20:30era, txapak egin eta banatu egingo dituzte Usabal

Ingurumen zentroa

Orain arte Zuloaga Txiki bezala ezagutu denak, Tolosako ingurumen eskolak, irudi berria estreinatu du eta aurrerantz, Tolosako Ingurumen Zentroa deituko da.

Udala garatzen ari den Tolosa 2015 estratejiaren baitan, «beharrezkotzat» jo dute ingurumen eskolak aurrerapauso bat ematea. Soilik hezkuntzan lan egiten duen ingurumen eskola izateari utzi, eta, bai udalerrian bai eskualdean, ingurumenarekin eta Tokiko Agenda 21ekin zerikusia duen ororen erreferentziagune bihurtzeko. Testuinguru horretan, irudiz aldatzea ere erabaki dute. Berri honek, modernitatea eta garbitasuna helarazten du. Honez gain, «bizitzaren ingurumena adierazten duen itxura borobilerekin eta zentroidek diren lerroen bidez, bizitza mantentzen duen energiaren seinale, babesaren adierazle da».

Ekimena borobiltzeko, webgunea jarri dute martxan. Hala, www.tolosa2015.net-en, Tolosako Ingurumen Zentroa ezagutzera ematen saiatuko dira. Ondorengo ataletan banatuta dago orria: nor gara, non gaude, baliabideak, harremanetan jartzeko, burututako proiektuak, lan arloak eta aktibitatea. Ingurumenaren arloan ere, erreferente izatea nahi dute webgune hau, Udalekoek.

kiroldegian eta Errota haur liburutegian.

Irailak 23, asteartea.

- **Hitzaldiak.** 'Eskolara oinez noa' izeneko saiok 17:30etik 18:30era, Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan.

Irailak 24, asteazkena.

- **Performance 2009.** Ikasleentzako lanaren aurkezpena.

Irailak 25, osteguna.

- **Bizikletak konpontzeko tailerra.** Topagunean izango da 17:00etatik 20:00etara.
- **Irailak 26, ostirala.**
- **Lehen sorospenteko ikastaroa.** Topagunean izango da, 17:00etatik 20:00etara.
- **Irailaren 22etik 28ra.**
- **Haur liburutegian.** Gaiarekin lotutako liburuak jarriko dira, eta liburuentzako markadoreak banatuko dira.

Hilberriak

JUAN MARI GARMENDIA ARTEAGA



Hire lehengusuak
Labaka Arteaga
Mujika Arteaga
Arteaga Labaka
Arteaga Olano
Odrozola Arteaga
Zubeldia Arteaga



BALIARRAINEN
2008ko irailaren
20an

Gurekin egingo haiz betirako

JUAN MARI GARMENDIA ARTEAGA

-Goian bego-

Gure atte mattea,
ireki diguzu bizi hontako atea
zaindu, hezi ta daukazun gutzia ematen
izan dezu artea, beti irrifarrez beteeta.
Hutsune latza utzi diguzu
baino jarraituko degu
zuk erakutsitako bidea.



BALIARRAINEN
2008ko irailaren
20an

Jon eta Pili, Eneko

GUILLERMO GARATXANA HERNANDEZ



(Lagun Onak M.B.ko bazkidea)
Asteartean hil zen istripuz, Mont Blanc-en


Lagun Onak Mendi Bazkuneko
kideok bat egiten dugu
bere familiararen saminarekin.



LAGUN ONAK MENDI BAZKUNA

AZPEITIA, 2008ko irailaren 20a





Festa giroa ere eraikitzen

IRURA Hasi dira aurtengo sanmielak. Ohi bezala, txupinazoarekin batera Herensugeak eman zien hasiera jaei, herriko plazan bildutako begiradapean. Txupinazo botatzeko ohorea izan zuten Ikastola sortu zuten Xabier Tapiak eta Jesus Angel Ugaldek batetik, eta bestetik, Josune Aiestaran lehenengo irakasleak

eta egungo zuzendariak eta Miguel Izagirre Gazte-Alaiak elkarteko egungo lehendakariak. Izan ere, elkarrekin honek bultzatu zuen Ikastolaren sorrera. Gaurkorako ekitaldi ugari antolatuta dituzte, haur eta gazte-eguna izanik. Ekitaldien artean, aipatzekoak haurren eta gazteen bazkariak. I. GARCIA

Urteroko Azoka Berezia, bihar egun guztian zehar

Asteasu » Ganadu erakusketa, elikagai eta artisauro produktuen postuak, perretxiko erakusketa... izango dira.

IMANOL GARCIA

Asteasuk bere Azoka Berezia izango du bihar. Goiz eta arratsaldez hainbat gauza ikusi eta erosteko aukera izango da. Guztira 60 postu inguru izango dira eta bertan elikagaiak eta artisauro produktua erosi ahal izango dira. 10:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 20:00etara egongo dira irekita.

Goizean zehar Lamiategiko larreran ganadu erakusketa izango da. Aipatzekoak da animalia guztiak Asteasuko baserrietakoak direla. Bestalde, 11:30ak inguruan esne behien erakusketa-lehiaketa egingo dute. Bertan herriko lau baserri-tako animaliek parte hartuko dute bost maila ezberdinetan.


Perretxikoak ikusgai

Aurten ere mikologiak bere lekua izango du. 200 perretxiko mota ikusteko aukera izango da frontoian, bakoitza bere informazioarekin. 13:00ak aldera perretxiko saski ederrenaren lehiaketaren sari banaketa egingo dute. Ordura-

ko, saskiak bertara eraman behar dituzte parte hartu nahi dutenek. Aurten ez dasaski irabazlearen enkanterik egingo, baina saria eta garaikurra jasoko ditu perretxikoak.

Arratsaldean ardi zakur lehiaketa egingo da Ibargain zelaian. 18:00etan hasiko da norgehiagoka. Bestalde, nezararitzairekin lotuta dagoen makinaria ikusteko aukera ere izango da udaletxearen aurrean.

Girorik ere ez da faltako, joaldunak eta 20 bat trikitilari kalejiran ariko direlako. Ohi bezala ere, taberna egongo da eta bertan taloak erosi ahal izango dira.



Inaxito da obraren pertsonaia nagusia, zerbakiaren batera. I. GARCIA

'1,2,3... Inaxito' lana, gaur Gurea aretoan

ERREDAKZIOA

Haurrentzako antzerkia ikusteko aukera izango da gaur, 17:00etan, Villabonako Gurea aretoan. Trikuharri taldeak 1,2,3... Inaxito antzezlan emango du. Sarrera dohainik da, Kutxaren laguntzaz eskainiko baita emanaldia.

Trikuharri taldeak Inaxitoren Ametsak bertso-antzerkia sortu zuen 2003ko udan. Bi urtetan ametsetan ibili ostean, ezkutaketa dabil orain Inaxito, jolasean: zerbakiaren ezkutaketa. 1, 2, 3... Inaxito bertso-antzerki berria herri herri dabil zerbakiaren bila.

«Bertso-antzerki bizi eta atsegin

honen haurren irudimena landu nahi du, sormena», azaltzen dute antzerki taldeak. «Buruari eraginez zerbakiak bilatu eta aurkitu behar ditugu denon artean. 0,1,2,3,4,5,6,7,8 eta 9 gorde egin dira; ondo gorde, gainera! Zein zerbaki da luze bezain argala eta sudur luze-luze duena?, eta hanka-luze, buruhandia?».

Antzezlanen istorio xelebreak dira nagusi. Bertso, musika, kantua eta oso pertsonaia berezidun istorioak. Amaieran, haurrei irakatsi nahi zaie dena dela posible irudimena erabiliz, zerbakiak aurkitzea ere bai.



Kale Nagusiko semaforoak martxan

IRURA Kale Nagusian jarri diren semaforoak dagoeneko martxan daude. Oraingo, botoia sakatu behar da, semaforoa gorrian jartzeko eta zebra-bidetik igarotzeko. Laster, egunean zehar, eskolaren sarrera eta irteera orduetan, semaforoa bera automatikoki joango da gorrian jartzeko. I. GARCIA

ez konformatu zafi batekin!

Villabonan edo Zizurkilen euskara ikasi edo hobetu nahi baduzu:

- Talde homogeneoak sortuz gero, ikastaroak Zizurkilen edo Villabonan bertan antolatuko dira, ikasleek inora joan behar ez izateko.
- Udalek matrikularen %75 arte ordainduko dute.
- Horrez gain, Mintzalaguna programan parte hartuz gero, %10 gehituko zaio ikasleak jaso beharko lukeen diru-laguntzari. Urriaren irekiko da Mintzalaguna egitasmoan izena emateko epea.

Diru-laguntza jaso ahal izateko, gutxienez, honako baldintza hauek bete beharko dira:

- Villabonan edo Zizurkilen erroldatuta egotea
- Gutxienez, %85eko asistentzia izatea
- Aldeko txostena errendimenduari dagokionez
- Matrikula ordainduta izatea

Gainera, merkatarientzako ikastaro bereziak antolatuko dira, eta doako ikastaroak etorkinentzat.

* Informazio gehiago nahi izanez gero, Villabonako edo Zizurkilen Euskara Zerbitzuetara jo dezakezu, edo telefonoz deitu (943693501 Villabonarako eta 943692495 Zizurkilerako).

Villabonako Euskara Zerbitzua
Euskara goxoa gurea egizu hoxka!

Villabona optika

2008 Umeentzako kanpaina berezia

Betaurreko graduatun egitean, motxila bat opari

Kale Berria 23A
Villabona
Tel.: 943 11 18 40



lazko marrazki lehiaketan jende askok hartu zuen parte. Urtero arrakasta izaten du. ESTI EZEIZA

Asteartetik igandera arte Kultur Asteaz gozatuko dute

Bidegoian » Txotxongiloak, lehiaketak, kirol eta gastronomia hitzaldia, magia eta azoka izango dira protagonistak aurten.

NEREA URBIZU

Bidegoian datorren astean Kultur Asteaz margildu egingo da. Dagoeneko 19. urtez ospatzen dute kulturarekin eta kirolarekin lotutako egun-sorta hau. Aurten asteartean ekingo diote eta igandera arte iraungo du, egunero ekitaldiak izanik. Txotxongiloak, antzerkia, hitzaldia, azoka, mahai ingurua, lehiaketak eta abar izango dira. Egitarau guztia arratsaldean antolatuko dute, igandera antolatutako ezik, goizez hasiko baita. Guztiak ere Bidanian eta Goiatzen izango dira banatuta.

Egitaraua aldetik aldaketa handirik ez dago, urtero asmatzen den seinale. Kirolari lotutako hitzaldia aurten pilotarien esku joango da: Mikel Beloso eta Oinatz Bengoetxea ariko dira balioitzeko gelan. Pilotariak asteazkenean izango dira.

Patata tortilla lehiaketarako izen-ematea hilaren 24era arte

Hilaren 26ean patata tortilla lehiaketa izango da eta bertan parte hartu ahal izateko aurretik izena udaletxean (943681109) eman behar da hilaren 24a baino lehen. 19:00etan izango da, Bidaniko frontoian, herriko trikitixa ikasleek jotzen duten musika alaia entzun ahal izango den bitartean.

Asteartean Zuk-zuk jaunaren alfabetoa txotxongilo-antzerki emanaldia izango da, haurrentzat aproposa. 17:30ean izango da Bidaniko pilotalekuan. Irrintzi txotxongilo taldearen emanaldia Bernardo Atxagak idatzitako izen bereko ipuinean oinarritutako antzezlan da. Aktoreak eta objektuak nahastan dira lanean eta txo-

» EGITARAUA

Irailak 23, asteartea

■ **17:30.** Zuk-zuk jaunaren alfabetoa, Bidaniko frontoian (Irrintzi txotxongilo taldea).

Irailak 24, asteazkena

■ **19:00.** Mahai ingurua Mikel Beloso eta Oinatz Bengoetxearekin, balioitzeko gelan.

Irailak 25, osteguna

■ **19:00.** Balioitzeko gelan janari makrobiotikoari buruzko hitzaldia.

Irailak 26, ostirala

■ **19:00.** Bidaniko frontoian patata tortilla lehiaketa.
■ **Bitartean.** Trikitixako ikasleen emanaldia kalea alaitzen.
■ **21:00.** Ogirik gabe etorri zene-

txongiloek, kasu honetan letrik, protagonismo berezia hartzen dute. «Oso testu interesgarria izanik, haur eta publiko familiarrentzat egokia eta erakargarria izan dadin».

Hilaren 27an (larunbata) Angel Magoaren saioa izango da ikusgai eta ondoren txokolatada bertarantzen direnzentzat, Bidaniko pilotalekuan, hain zuzen. Dena dela, urtero-urtero egiten duten marrazki lehiaketa aurretik izango da,

mea antzerkia izango da ikusgai (Eduarne Agirrezabala), balioitzeko gelan.

Irailak 27, larunbata

■ **15:00.** Marrazki lehiaketa. 5 maila ezberdinetan egongo da banatuta. Saria maila bakoitzeko lehenengo bientzat izango da.
■ **17:30.** Angel Magoaren emanaldia pilotalekuan.
■ **Ondoren.** Txokolatada.

Irailak 28, igandea

■ **Goizean zehar.** Goiazko plazan erakusketa, azoka eta jaia. Sagardo eta txakolin dastaketa eta sardina-jatea. Azokan produktu ezberdinen salmenta izango da.

15:00etan hasita. Bost maila ezberdinetan banatu dute lehiaketa: 5 urte artekoak, LH 1. eta 2. maila, LH 3. eta 4. maila, LH 5. eta 6. maila eta 12 urtetik gorakoak azken maila. Saria maila bakoitzeko lehenengo bientzat izango da.

Igandean (hilaren 28an) azoka berezia izango da, sardina-jatea, sagardo, txakolin eta guzti. Herriko baserriko antzinako barne tresnen erakusketa ere izango da gauza berezi moduan.

Bihar XIX. Joxean Tolosa Txapelketako finalak jokatuko dituzte

Amezketak » Jakak, Arzelus eta Onsalok pilotariak Loidi, Zabaleta eta Armendarizen aurka txapela jokatuko dute.

N. URBIZU

Bihar Amezketako pilotalekuan XIX. Joxean Tolosa Pilota Txapelketako finalak jokatuko dira. 17:00etatik aurrera hiru norgehiagoka izango dira: kadeteen, jubentzen eta nagusien artekoa, alegia.

Eskualdeko pilotariak iritsi dira final handira, bi mailatan gainera: Jaka kadeteen artean (gogoratu behar da mutiko hau infantila dela) eta Onsaloko nagusietan. Aurkari gogorak izango dituzte aurrez-aurre. Jakak Loidiren aurka, Arzelusek Zabaletaren aurka eta Onsalok Armendarizen kontra. Orain arte giro bikaina izan da pilo-

takekuan eta hala espero dute bihar ere, pilotarien eta pilotazaleen artean giroa izatea.

Joxean Tolosa pilotaria bera ere bertan izango da. Sari banaketaren ondoren afaria egingo dute Zazpi-Isturri elkartearen, pilotarien eta antolatzaileen artean.

«Ez da erraza izan hiru hilabete barruan txapelketa batean 66 kadete 73 gazte eta 89 nagusi antolatza» gogoratzen du Xalton Zabalak.



Jaka eta Onsaloko HITZA Txapelketan ere aritu dira. N. G.

Laburrak

Astelehenean irekiko dute berriz Udal Liburutegia

BIDEGOIAN » Uda bukatuta, Bidegoiango Udal Liburutegia martxan jarriko da berriz datorren astelehenean (hilaren 22an). Urtean zehar bezala, ordutegi bera mantenduko dute: astelehenean eta asteazkenean irekiko dute, beraz, 16:30etik 19:00etara bitartean.

Altuna erremontisten bazkarirako txartelak

AMEZKETA » Hilaren 28an Amezketako Altuna anaiei egingo zaion omenaldirako bazkaria prestatu dute. Bazkarirako txartelak salgai daude (25 eurotan) herriko tabernetan. Txartelak erosteko azken eguna gaur da. Bazkaria Ergoneko frontoian izango da.

Bihotz Bakartien Klubak Tolosan, Bonberenean, *Katamalo* aurkezteko eskainitako emanaldiaren irudia. I. TERRADILLOS

Itsaso Etxebeste: «Saioz saio jende gehiago etortzen zela ikusi dugu»

Belauntza » Erantzi' zuzeneko diskoa kaleratu berri dute Bihotz Bakartien Klubekoek; horietako bat da, hain justu, belauntzarra.

REBEKA CALVO

Bihotz Bakartien Klubak disko berria kaleratu du. Duela bi urte *Katamalo* proiektuarekin abiarazitako egitasmo bereziak erantzun ona izan du eta honen haritik dator, hain justu ere, *Erantzi* (Gaztelupeko Hotsak, 2008) zuzeneko. Gernikan eskainitako emanaldia da, hain zuzen ere, disko berri honetan entzun ahal daitekeena. Gogoratu behar da, era berean, duela urte bete *Katamalo* (Gor, 2007) izeneko diskoa ere kaleratu zutela.

Izan ere, literatura eta musika batzen dituen formatu honek gutxinaka-gutxinaka, pausoz pauso, bereganatu du entzuleen interesa.

35 bat emanaldi eskaini dituzte BBKkoek denbora honetan guztian, eta beraiek ere harritu egin dira lortutako arrakastarekin. Uste hori du behintzat taldekideetako batek, Belauntzako Itsaso Etxebeste baxu-jotzaileak: «Saioz saio jende gehiago etortzen zela ikusi dugu, abestiak ezagutzen zituztela... Harrizten joan gara pixkanaka, zeren eta ardatza literatura izanda, nahiz eta musikak ere garrantzia handia duen, beldurra ere bage-neukan. Baina azkenean jendeak gustura hartu du».

Etxebesterentzako oso esperientzia ona izan da Bihotz Bakartien Klubeko partaide izatearena, «aberasgarria izan da oso», dio zentzu honetan. Musikaria oso gusturagertu da egindako lanarekin, bai *Katamalo* aurkeztu zutenetik eskainitako emanaldiekin eta baita Gernikan grabatutako *Erantzi* n eginiko lanarekin, nahiz eta bere buruarekin «oso kritikoa» dela ere onartzen duen. «Oso espe-

rientzia ona izan da. Grabatzerako garaian ez neukan horretan ari gineneko kontzientzia ere. Betikoa egitera joan ginen eta gusturagertu naiz emaitzarekin», esan du *Erantzi* ziren inguruan.

Diskoaren nahasketa ere gure eskualdean egin zuten gainera, Amezketan, hain justu: «Mikel Fernandez Krutzagaren Amezketako estudioan egin genuen nahasketa eta etxean bezala egon ginen. Asko ikasi dut. Mikelen lana ikustea oso interesgarria izan da».

Erantzi hortaz, Bihotz Bakartien Klubak orain ia bi urte abirazitako ibilbidearen azken txanpa da. Sei saio besterik ez dituzte aurretik; Bilbon, Ortuellan, Gasteizen, Iruñean, Donostian eta Durangon. «Pena ematen dit, guztioi, nik uste. Alde batetik, musika berarengatik, gustuko dudana musika egiten dugulako, baina baita biltzen garen talde txoa berriz ere biltzea zaila izango delako. Emanaldi bakoitzean disfrutatutako dut nik».

Osasunaren inguruko hitzaldiak izango dira datorren astean

Gizartea » Gaztelun, Leaburun eta Oresan izango dira Uli Mankomunitateak antolatutako hitzaldiak.

ERREDAKZIOA

Ongi lo egiten ahalegin du hobeto bizitzeko, Gernu-jarioa eta Etxeko arriskuak ete lehen sorospenak dira Gaztelun, Leaburun eta Oresan, hurrenez hurren, datorren astean izango diren hitzaldien izenburuak.

Uli Mankomunitateak antolatu ditu aipatu hitzaldiak Kutxa Ikasgelak sustatutako osasunari buruzko jardunaldien barruan, eta nahiz eta, batez ere, erretiratutako jendeari zuzendutakoak izan, Mankomunitateak herritar guztiak gonbidatzen dituela ere esan du. Jardunaldien helburua «gaurkotazuzko hainbat gai jorratzea eta eguneroko bizimodurako oihuta eta praktika osasungarriak lantzea» dela ere argitu dute antolatzaileek.

Astearterik ostegunera

Horiek horrela, *Lo ondo egiten saiatu*, Gazteluko eskolan izango da datorren asteartean, hilak 23, 17.30etan. Hitzaldian loaren faseak, loezin motak, loezinaren tratamendu farmakologikoa, gehiago

eta hobeto lo egiteko neurriak eta aholkuak eta loaldiko apnea zer den landuko dute, besteak beste.

Gernuari eutsi ezina, berriz, Txaramako Osasun kultur gunean izango da asteazkenean, hilak 24, 16.30etan. Honakoak alor honetako aldaketa fisiologikoez informatuko dute eta bizi ohitura osasungarriak bultzatzen saiatuko dira, horretarako aldaketa horietara egokitzeko laguntza emango dutelarik. Helburua pertsona helduaren bizi-kalitatea hobetzea izango da. Zehazki gernuari eutsi ezina zer den, emakumeen zein gizonezkoen kasuak eta gernuari eutsi ezinak dakartzan arriskuak landuko dituzte.

Azken hitzaldia ostegunean, hilak 25, izango da Oresako Udaltzeko ganbaran 18.15etan. *Etxeko arriskuak eta lehen laguntzak* izeneko hitzaldiaren xedea etxean gerta daitezkeen arrisku eta istripuen berri ematea da, hartara behar bezalako prebentzio-neurriak hartu eta halako egoera eman ez gero zer egin jakin ahal izateko. Horrela istripu-mota nagusiak zeintzuk diren argituko dute, lehenik eta behin, ondoren janariaren eta botiken ondoriozko intoxikazioak emanda egin beharrekoak, lipotimia eta zorabioen aurrean zer egin eta odoljarioa izanez gero zein neurri hartu behar diren argituko dutelarik, besteren artean.

Laburrak

Asteartean zabalduko dute berriz ere liburutegia

BERROBI » Datorren asteartean irekiko dute berriz ere Berrobiko liburutegia udako oporraldien ondotik. Betiko moduan, asteartean eta ostegunetan egongo da zabalik ohiko ordutegiarekin; 17.00etatik 19.30etara. Berrobiko bizilagunek erabili, kontsultatu edota mailegatu ahal dituzten liburur, egunkari eta aldizkariak aurkituko dituzte liburutegian.

Bihar, goiz osoan zehar, azoka berezia izango da

IBARRA » Bihar izango da Ibarra *Ibarra, azoka eta piparra* azoka berezia. Bi gune izango dira (Emeterio Arrese parkea eta San Bartolome plaza) eta goiz osoan zehar artisauak, tailerrak, argazkiak, herriko baserrietako abere zein barazki eta jaki desberdinak izango dira. Laguraren Euskal Herriko Pipararren Lehiaketa Gastronomikoa ere egingo dute.

Iragarki laburrak

SALGAI

■ **Furgoneta.** Peugeot Partner Die-sela, egoera honetan. Deitu telefono zenbaki honetara: 649 510 941.
■ **Etxebizitza.** Etxebizitza salgai Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. 657 230 011 edo 634 919 482.
■ **Txakurrak.** Arratoi txakurrak, bi hilabeteetako hiru txakurkume dira. 943 69 07 26.

LANA

■ **Kamarera.** Anoetan esperientzia duen kamarera bat behar dugu. Igandeetan jai. Interesa dutenek 650 043 139 zenbakira deitu behar dute.
■ **Zerbitzaria.** Esperientziadun zerbitzaria behar dugu. Astelehene-tik ostiralera eta igandeetan jai. Lanaldi erdia. Deitu 943 67 04 46 telefono zenbakira.

**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

@ Eztabaida. HITZAK eztabaida berri bat jarri du abian.

Oraingoan hauxe da luzatzen dizuegun galdera: Iruran Kilometroak 2008 izango da urriaren 5ean. Joateko asmorik ba al duzu? Zergatik? Era berean, inkesta berri bat ere badugu. Zeinek irabaziko du hilaren 28an Tolosako zezen-plazan egingo duten harrizsotzaileen apustua, Izeta II.nak edo Irigoienek? Erantzunak HITZAREN web orrialdean eman ahal dituzte. Ohiko atalak ere bertan topatuko dituzte:

www.tolosaldeko-hitza.info



Bizikleta Martxa egoki egiteko, txekeoa

BERASTEGI • Atzo Mugikortasun Astearen baitan, Berastegin bizikleta txekeoa egin zuten, Arsuaga Bizikletak-ekoek lagunduta. 60 bat txirriindulari elkartu ziren pilotalekuaren ondora, ondoren bizikleta martxa egiteko. Bizikleta martxan Muñagorri herri ikastetxeko LHko ikasle guztiak aritu dira. Euriak ez zuen martxa zapuztu. **HITZA**



«Zelarain askatzeko» eskatu dute

VILLABONA • Amnistiaren Aldeko Mugimenduaren aurkako epaiekartan kartzelaratu duten Julien Zelarain billabonatarra askatzeko exijitu zuten atzo Villabonako kaleetan 200 lagun inguruk, bertan eginiko manifestazioan. «Elkartasuna, errepresioa salatzea, presoak babes-tea, tortura salatzea... ez da delitua» esan zuten bertaratuek. **E. EZBIZA**

Eskualdeko UEMAKo udalak euskara ikasteko eta alfabetatzeko bultzatzen

Alegia • Euskalgintzako kideek eta UEMAK, Aitzol eta AEK euskaltegiak martxan jarritako izen-ematearekin bat egin dute.

ERREDAKZIOA

Tolosaldeko Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko udalak eta euskalgintzako kideek bat egin dute Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiak eta Andoaingo AEKk abian jarri duten matrikulazio kanpainarekin. Aurten, Udalak «ahalegin berezia» egiten ari dira herrietan ikasle taldeak sortzeko. Horretarako, udalteeetan izena emateko aukera eman dute eta diru laguntzak eskaini. Helburuak «erdaldunak euskarara hurbiltzea eta euskaldun alfabetatugabeek alfabetatze taldeetan izena ematea» dira.

Ondorioz, herriarrak euskaltegiaren izena ematera animatzen ari dira. Matrikulazio kanpaina hilaren 26ean itxiko da AEKn. UEMAKo herriarrak udalteeetara jo dezakete informazioa eskuratzeko eta izena emateko. UEMAKo herriak hauek dira: Aduna, Alegia, Altzo, Anoeta, Baliarrain, Belauntza, Ikaztegieta, Elduain, Gaztelu, Irura, Leaburu-Txarama, Orendain eta Orea. UEMAKo udaltek ordezkariek Alegian nabarmendu zuten, ikasle taldeak herrian bertan osatzea bultzatzen ari dira. Horretarako, udal instalazioak uzteko ere prest dira.

Maidar Jauregi Alegiako alkateordeak nabarmendu zuen «euskararen alde gauzak elkarlanean egiten badira ekimenek indar handiagoa» dutela. Alegiako UEMA Eguna gogoratu zuen, orduko leloak erabateko balioa orain ere izanik: «Herria da gorputza, hizkuntza



Mari Kruz Agirre, Miren Aburuza, Agurtzane Sarasola, Maider Jauregi, Martxeli Sagastume, Marimi Ugalde, eta Amaia Doyague Alegiako herenegungo aurkezpenean. **HITZA**

tza bihotza, euskararen taupada, txintxarrien hotsa. Bihotza zaindu behar da, biziberritu, eta hori lortzeko odol berria euskaldunberriak dira».

«Eskaintza egokia»

Tolosako Aitzol Udal Euskaltegiaren izenean, Martxeli Sagastumek hartu zuen hitza, UEMAKo herrietan, «zorionez», euskaldunak direla nagusi eta «altxor baten jabe» direla azpimarratuz. Halere, «kontuan hartu behar da edadeko

jendea badoakigula eta euskararen altxorren zati bat eurenkin doala: jendeak ikusi behar du oraindik ere garaitz dabilela alfabetatzeko». Gogoia duenari laguntzeko «eskaintza egokia dute euskaltegiak», ikaslearen beharretara egokitu: tutoretan gidaritzapean aritzea eta hamabostean behin elkartzeko.

Mari Kruz Agirre Leaburu-Txaramako alkateak bere konpromisoa jarri zuen mahai gainean, ez soilik herrian alfabetatze talde bat

sortzea bultzatu nahi duelako, baita berak izena emango duelako ere. «Inplikatzeko da balio duena, euskara sustatzea eta bultzatzea, eta euskararen alde zer egin dezakegun galdetzea. Argi dute zer egin dezakedan, eta egin egingo dute».

Andoaingo AEKko Agurtzane Sarasolak azpimarratu zuen, oro har, herri euskaldun txikiengan zailtasun handiak dituztela ikasle taldeak osatzeko: «HABEK ezartzen dituen gutxieneko kopurua ez dira oso lagungarriak taldeak

abian jartzeko». Izan ere, 5.000 biztanleko beherako herrietan sei lagun behar izaten dira. Ondorioz, asko dira euskara ikasteko talde gabe geratu direnak.

UEMAko Zuzendaritza Batzordeko Miren Aburuza kideak ere gai berari heldu zion: «Egungo hizkuntza politika bezala, ratioek ez dute balio gure herrietan. Askotan, oztopo eta erabateko muga ere badira taldeak sortzeko eta herriarrak izena ematera animatzeko».

Etorkinei dei berezia

Irurako alkate Marimi Ugaldek gogorazi zuen aurten «oso urte berezia» dela Iruran, kilometroko ospatuko dutelako, baina horrekin batera, adierazi zuen ez dituztelaparte utzi euskararen normalizaziorako gainerako ekimenak. Dei berezia egin zuten etorkinei: horrez gain, etorri berriak euskalduntzeko «apustu indartsua» egiten jarraituko du.

Azkenik, Amaia Doyaguek hartu zuen hitza, Galtzaundi eta Kontseiluaren izenean hitz egiteko: «Ez litzateke txarra Alegian bildu direnak sarriago biltzea eta ekimen bateratuak aurrera eramatea». Gainera, «euskalgintzan ari diren erakundeak euskaraz normaltasunez bizitzeko baldintzak sortu» nahi dituzte. «Baina normalizaziora iri steko ezagutza eta erabilera zabaltzeko aukera berriak sortzen jarraitu behar dugu».

HITZA lanpostua

irutxuloko HITZak

KAZETARIA BEHAR DU

Eskatzen da:

- Euskarazko kazetaritzan eskarmentua izatea.
- Donostia ezagutzea baloratuko da

Curriculum Vitae zehatza bidali irailaren 25a baino lehen.
donostia@irutxulokohitza.info edo
deitu 943-46 72 36 telefono zenbakira

BARNE ANTOLAKETAKO ARDURADUNA (08BAA Erreferentzia)

Euskal Editorea SL egoitza nagusia Andoainen duen enpresak Barne Antolaketako Arduraduna lanpostua bete behar du aldi baterako. Lanpostuko zeregin nagusia taldeko barne antolaketak kudeatzea eta laneko prozesu eta emaitzen jarraipena egin eta dokumentatzea izango da.

Eskaintzen da:

- 18 hilabeteko kontratua.
- Astean 20 orduko lanaldia.
- Berehala hastea.

Eskatzen da:

- Prozesuen antolaketaren eta kalitate sistemen inguruko ezagutza izatea.
- Unibertsitate mailako ikasketak izatea kontuan hartuko da.
- Ofimatika programak erabiltzen jakitea.
- Datuak antolatze eta kudeatzeko gaitasuna izatea.
- Komunikaziorako gaitasuna izatea.
- Antzeko lanetan esperientzia izatea kontuan hartuko da.

Lanpostua betetzeko interesa duenak CV eguneratua bidal dezala, erreferentzia zehatuz, gizabaliabideak@jarduna.net helbidera, irailaren 26a baino lehen.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko hitza.info.
Leitza: 687 410 118. leitza@tolosaldeko hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari

'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Orexa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Azoka

■ **Tolosa.** X. Garagardo Festaren barruan, Pedal festa antolatuta dute San Frantzisko pasealekuan 16:00etatik aurrera; Urrezko Aizkora Triangulon 18:00etan eta Vista Alegre txaranga 20:00etan.

Zinema

■ **Tolosa.** *Mamma mia* filma emango dute asteburuan Leidor aretoan: gaur 22:30ean eta bihar 19:30ean.
■ **Tolosa.** *Antes que el diablo sepa que has muerto* filma emango dute asteburuan Leidor aretoan: gaur 19:30ean, bihar 22:00etan eta etzi (Ikuslearen eguna) 20:30ean.

Antzerkia

■ **Tolosa.** *Bremengo musikariak* haurrentzako antzerkia emango dute Leidor aretoan 17:00etan.

Musika

■ **Tolosa.** DJ Black-en emanaldia izango da Zerkausion 23:00etan.

Deialdiak

■ **Tolosa.** Tolosako Orfeoaren 10. urteurrenko ospakizunen baitan, Tolosan eskaini zuen lehen obra plazaratuko dute berriro urriaren 18an Leidor aretoan: Jesus Guridiren *El Caserio*. Sarrerak salgai daude Kutxaren webgunean eta zinemako leihatilan.
■ **Tolosa.** Triangulon ezker abertzaleak *Salbuespen egoerari STOP; Euskal Herriak Autodeterminazioa* lelopean 19:30ean.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Ibarra.** Ugarte, M.T. Euskal Herria, 46. 943 673274.
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

Bihar, zortzi finalistak!

SENEGAL ● Laida Zubillagaren argazki partehartzailea hauxe izan da, Senegaletik. «Argazki hau Carabane irulan atera genuen. Hondartza paradisiako honetara iritsi eta hara!! ze turista xelebre!».



SENEGAL ● «Iwol herrixkan aintzineko ohiturak eusten saiatzen dira, baina hara! noraino iristen diren chupa chups makilak!», azaldu du Olatz Amianok, Senegalen eginiko argazkia bidaltzarekin batera.

SENEGAL ● Igone Eraso Senegalen egon da: «Iwol herrixkan, mendialdean zegoen; umez josita, eta ikusten dezuten bezela han haurtzaindegia ez du ez ikastolak ta ezta partzuergoak ere!».



943 671 427

hitza info

elastikoak salgai
haur, gazte eta helduentzat

Harpidedunentzat
%25
merkeago

Tolosako HITZAren bulegoan eskuragarri.

elastikoarekin
poltsa opari!